

LANBIDE PROGRAMACIÓN  
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTALATZE ETA  
MANTENTZE LANAK

INSTALAZIO TERMIKOAK ETA FLUIDODUNAK MANTENTZEA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

2. modulua: Ekipamendu eta Instalazio  
Termikoak

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE PROGRAMAZIOA      PROGRAMACIÓN  
HEZIKETAKO ZIKLOEN      DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
PROGRAMAZIOA      DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTALATZE ETA  
MANTENTZE LANAK

## INSTALAZIO TERMIKOAK ETA FLUIDODUNAK MANTENTZEA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

### 2.modulua: Ekipamendu eta Instalazio Termikoak

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
Lanbide Heziketako eta Etengabeko  
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional  
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Argitaraldia: 1.a, 2009ko urria

Egilea: Antonio Gil de Gómez Jordana

Argitaraldia eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán  
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL  
[www.kei-ivac.com](http://www.kei-ivac.com)



Diseinua eta diagramazioa: TRESEDTRES

L.G.: BI-1760-09



# AURKIBIDEA

Iraupena: 231 ordu  
UDen kopurua: 10

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzeraz eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzeraz gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

## UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA

0.	0. unitate didaktikoa: Moduluaren urkezpena	Or. 03
1.	1. unitate didaktikoa: Termotekniaren aplikazioa	Or. 05
2.	2. unitate didaktikoa: Karga termikoen kalkulua.	Or. 07
3.	3. unitate didaktikoa: Konfort-baldintzak zehaztea.	Or. 11
4.	4. unitate didaktikoa: Fluido-sareen kalkulua.	Or. 14
5.	5. unitate didaktikoa: Hotz-zikloen analisisa.	Or. 17
6.	6. unitate didaktikoa: Hotz-instalazioak.	Or. 20
7.	7. unitate didaktikoa: Beroa sortzeko parametroak identifikatzea.	Or. 24
8.	8. unitate didaktikoa: Beroa sortzeko instalazioak.	Or. 27
9.	9. unitate didaktikoa: Girotzeko eta aireztatzeko instalazioak.	Or. 29
10.	10. unitate didaktikoa: Suteen aurkako instalazioak.	Or. 32
		Or. 35



## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK						UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6		
						UD0: Moduluaren aurkezpena.	1
X						UD1: Termotekniaren aplikazioa	30
X						UD2: Konfort-baldintzak zehaztea.	10
X						UD3: Karga termikoen kalkulua.	30
				X		UD4: Fluido-sareen kalkulua.	37
X						UD5: Hotz-zikloen analisia.	30
		X				UD6: Hotz-instalazioak.	30
X						UD7: Beroa sortzeko parametroak identifikatzea.	10
X	X					UD8: Beroa sortzeko instalazioak.	25
X			X			UD9: Girotzeko eta aireztatzeko instalazioak.	18
X					X	UD10: Suteen aurkako instalazioak.	10
<b>GUZTIRA</b>							<b>231 h</b>

1. multzoa: Instalazio termikoak kalkulatzea
2. multzoa: Beroa sortzeko eta ur bero sanitarioko instalazioetako osagaiak identifikatzea eta kalkulatzea
3. multzoa: Hotz-instalazioetako osagaiak deskribatzea eta kalkulatzea
4. multzoa: Girotzeko eta aireztatzeko instalazioetako osagaiak identifikatzea eta kalkulatzea
5. multzoa: Instalazio termikoetan eta girotzeko eta aireztatzekoetan fluidoaren garraio-sareak kalkulatzea
6. multzoa: Suteen aurkako babes-instalazioak konfiguratzea.



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA							Iraupena: 1 ordu						
<b>Ikaskuntzaren helburuak:</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Moduluen garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.</li> <li>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.</li> <li>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.</li> <li>4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluaren arteko lotura nagusiak ulertzea.</li> <li>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</li> </ol>													
<b>EDUKIAK</b>							<b>Multzoak</b>						
							1	2	3	4	5	6	
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.</li> <li>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</li> </ul>											
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.</li> <li>• Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.</li> <li>• Moduluen helburuak.</li> <li>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</li> </ul>											
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.</li> <li>• Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</li> </ul>											
<b>JARDUERA</b>				<b>METODOLOGIA</b>				<b>BALIABIDEAK</b>					
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den			ZEREKIN egingo den		
				Ir.	Ik.								
J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.		1	10 min.	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.		Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.			Ez da bitarteko berezirik behar.		



J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 min.	X		Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 min.	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 min.	X	X	Jarduera hori elkarriketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.

#### OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoak ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: TERMOTEKNIAREN APLIKAZIOA Iraupena: 30 ordu

*IE 1: Berotzeko, hozteko eta girotzeko instalazioetako karga termikoa kalkulatu du, eta, horretarako, taula, diagrama eta programa informatikoak erabiltzen ditu*

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Magnitudeak dagozkien unitateekin lotzea SI sistemari eta beste sistema batzuetan.
2. Temperatura eta hezetasuna neurtzeko tresnen bitartez hainbat eskala termometrikotan lortutako datuak interpretatzea.
3. Beroaren eta temperaturaren kontzeptuak bereiztea.
4. Hainbat itxituren bidezko bero-fluxuak kalkulatuzea, baita instalazio termikoetan eskatzen diren isolatze-lodierak ere.
5. Hainbat presio-eskalatan manometro bidez egindako neurketak ebaluatzea.
6. Aldagai termodinamikoak aldatzean gasen portaera aztertzea.

EDUKIAK						Multzoak					
						1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Isolamendu termikoa kalkulatuzea eta isolamenduen ezaugarriak finkatzea.</li> </ul>					X					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Energia eta beroa. Bero-transmisioa. Bero espezifikoa, sentigarria eta sorra.</li> <li>Gas perfektuen portaera.</li> <li>Magnitudeak, unitateak eta unitate-sistemen arteko bihurtetarako.</li> <li>Tutuerien bero-isolatzea.</li> </ul>					X					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Unitateen erabilera zuzenari arreta jartzea.</li> </ul>					X					
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo duzun edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den				
			Ir.	Ik.							
J1 UDaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	Ikasleek aldez aurreko jakintzak azalera ditzaten, eta horien eta garatu beharreko edukien arteko loturak ezar ditzaten, horiek ikasteko interesa sorrarazteko.	Ikasleei emango zaien unitatea aurkezteko eskema.				





J2 Termotekniaren alorreko unitate-sistemei eta magnitude nagusiei buruzko azalpena.	1,2,5	1,5 h	X		Irakasleak ingeniartzan erabiltzen diren unitate-sistemak aurkeztuko ditu, batez ere nazioarteko sistema eta neurri-sistema angloamerikarra. Funtsezko magnitudeak azalduko ditu, batez ere termoteknian erabiltzen direnak, luzera, masa, denbora, presioa, energia, potentzia, tenperatura, eta abar. Erabili ohi diren beste neurri-sistema edo unitate-sistema batzuk ere aipatuko ditu. Mota bakoitzeko unitate-sistemaren aplikazio-esparruak emango ditu aditzera.	Sistema termikoetan erabilitako magnitudeak ezagutzeko.	Arbela Powerpoint
J3-E1 Magnitudeei eta unitate-aldaketei buruzko ariketak egitea.	1,2,5	4 h	X	X	Ikasleek sistemen magnitudeen eta unitateen taula bat egingo dute. Era berean, baliokidetasunen beste taula bat egingo dute. Irakasleak unitateak aldatzeko web-orriak edo ordenagailu-programak erakutsiko ditu. Irakasleak kontzeptu fisikoak sendotzeko ariketak proposatuko ditu. Garrantzi berezia emango die presio, energia eta lanaren kontzeptuei. Bestalde, sistemen artean unitateak trukatzeko ariketak planteatuko ditu.	Magnitudeen eta unitateen gaineko lan-jarduerak egiteko.	Ordenagailua, Internet, Software espezializatua.
J4 Energiaren, beroaren eta tenperaturaren kontzeptuei buruzko azalpena.	2,3	2 h	X	X	Irakasleak beroaren eta tenperaturaren kontzeptuak azalduko ditu. Eskala termometrikoak eta horien arteko erlazioak azalduko ditu. Bero espezifikoaren azalpenarekin jarraituko du. Horretarako, hainbat konposatutarako balioen taula aurkeztuko du (ura, alkohola, kobrea, eta abar). Bero sorraren eta sentigarriaren kontzeptuak azalduko ditu. Ikasleek diagrama bat (Q,T) egingo dute uraren kasurako urtzearen eta lurruntzearen bero sorren balioekin. Azkenik, entalpiaren eta entropiaren kontzeptuak azalduko ditu.	Beroaren eta tenperaturaren kontzeptuak bereizteko. Bero sentigarriaren eta sorraren, bero espezifikoaren eta entalpiaren kontzeptuak sartzeko, ondoren beste UD batzuetan erabiliko baitira.	Arbela. Ordenagailua. Power Point
J4 Termometriari buruzko praktika gidatua.	2,3	3 h	X	X	Irakasleak ikasgela-lantegian dauden hainbat motatako termometroak erakutsiko dizkie ikasleei. Ikasleek hainbat barrutitan neurtuko dute tenperatura: ikasgelan, korridorean, kanpoan, hotz-ganberetan, eta abar. Termohigrometroak erabiltzean, irakasleak hezetasunaren kontzeptua sartzeko aukera balliatuko du. Irakasleak tenperaturak erregistratzeko ikasgela-lantegian	Instalazio termikoetan erabiltzen diren termometro motak ezagutzeko eta horiekin esperimendatzeko.	Termometroak, termohigrometroak, data-loggerak.



					dagoen materiala eta horiek kontrolatzen dituzten programak erakutsiko dizkie ikasleei. Ikasleek <i>data-loggera</i> programatuko dute astebetean ikasgelako eta kanpoko tenperatura erregistratzeko. Amaitzean, emaitzak inprimatuko dira eta kanpoko tenperaturaren eta barrukoaren arteko korrelazioa eztabaidatuko da. Irakasleak inertzia termikoaren kontzeptua azalduko du.		
J5-E2 Energiari eta beroari buruzko ariketak egitea.	2,3	4 h	X	X	Irakasleak eskala termometrikoa aldatzeko ariketak planteatuko dizkie ikasleei (Celsius, Fahrenheit eta Kelvin). Ondoren, materialen dilatazioari buruzko ariketak planteatuko dizkie, eta, horretarako, dilatazioaren kontzeptua azalduko die eta dilatazio-taulak erakutsiko dizkie. Amaitzeko kalorimetriari buruzko ariketak planteatuko dizkie.	Termometriarekin, materialen dilatazioarekin eta bero-fluxuaren eta fluidoaren nahasketaren kontzeptuekin lan egiteko.	Arbela, Ordenagailua, Power Point, termometroak.
J6 Bero-transmisioaren kontzeptuei buruzko azalpena.	4	3 h	X		Irakasleak bero-transmisioaren eta isolamenduaren kontzeptuak azalduko ditu. Konbekzio-eroankortasunaren eta transmisio-koefiziente globalaren koefizienteak azalduko ditu. Forma edo tutueria batean zeharreko eroankortasuna kalkulatu du. Eraikuntzako Kode Teknikoaren eta instalazio termikoen erregelamenduari buruzko erreferentzia egingo du.	Bero-transmisioaren motak ezagutzeko, zeharkako kontzeptua baita instalazio termikoetan, eta instalazio horien erregelamenduak ezagutzen hasteko.	Eraikuntzako Kode Teknikoa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua, arbela, Power Point
J7-E3 Bero-transmisioari buruzko ariketak egitea.	4	4 h		X	Irakasleak bero-transmisioa kalkulatzeko ariketak planteatuko dizkie ikasleei. Hormetan zeharreko transmisioari buruzko ariketak planteatuko dizkie, berriz, ziurtapen energetikoko LIDER programaren estandarrak erabiliko ditu. Era berean, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari buruzko ariketak planteatuko ditu.	Transmisioaren kontzeptu horiekin lan egiteko. Eraikinen ziurtapen energetikoa ezagutzen hasteko.	LIDER programa Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua. Ordenagailua. Power Point
J8 Presio-neurketen buruzko jardunbide gidatua.	5	2 h	X	X	Irakasleak presioaren kontzeptua azalduko die ikasleei, baita presioa likidoen eta gasen gainean nola gauzatu behar den ere. Ondoren, eta ikasleekin batera, presio-neurketak egingo ditu ikasgela-lantegian eskura dauden elementuekin:	Instalazio termikoetan dauden zenbait presio-neurgailuekin esperimintatzeko.	Lantegi termikoetan dauden manometroak.



					barometroarekin, manometro-zubiarekin, gas-botilen manometroekin, ur-manometroekin, manometro elektrikoekin, eta abar.		
J9 Gasen funtsezko legeei buruzko azalpena.	6	2 h	X		Irakasleak gasen presioaren, temperaturaren eta bolumenaren arteko lotura azalduko du, eta, horretarako, Mariotte, Gay-Lussac eta Charles-en legeak eta gas perfektuen legea azalduko du. Ondoren, gas-nahasketa baten portaera azalduko du, eta Daltonen legea azalduko du.	Presioen, temperaturren eta bolumenen aldaketekin gasek eta horien nahasketek izango duten portaera ezagutzeko –kontzeptu horiek zeharkakoak dira instalazio termikoetan eta fluidodunetan–.	Arbela. Ordenagailua. Power Point
J10-E4 Gasen funtsezko legei buruzko ariketak egitea.	6	4 h		X	Irakasleak aldagai termodinamikoak lotzen dituzten ariketak planteatuko dizkie ikasleei. Instalazio termikoen adibideak jarriko ditu, hotz-instalazioenak, bero-instalazioenak eta girotzeko instalazioenak.	Aldagai termodinamikoak aldatzean gasek eta horien nahasketek duten portaeraz jabetzeko.	Arbela. Ordenagailua. Power Point. Instalazio termikoen kasu praktikoak.
<b>OHARRAK</b>							



2. unitate didaktikoa: KONFORT BALDINTZAK ZEHAZTEA Iraupena: 10 ordu

IE 1: Berotzeko, hozteko eta girotzeko instalazioetako karga termikoa kalkulatu du, eta, horretarako, taula, diagrama eta programa informatikoak erabiltzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Konfort-baldintzak zehaztea.
2. Aire-tratamenduko unitate batean aire hezearen propietate termodinamikoak aztertzea.

EDUKIAK					Multzoak							
					1	2	3	4	5	6		
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diagrama psikrometrikoa erabiltzea.</li> <li>• Diagrama psikrometrikoko aire-nahasketak irudikatzea.</li> <li>• Aireztatzeko beharren kalkulua egitea.</li> <li>• Airearen parametroak neurtzea.</li> <li>• Aplikatzekoak diren programa informatikoak erabiltzea.</li> </ul>			X							
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aire hezearen propietateak.</li> <li>• Diagrama psikrometrikoa.</li> <li>• Aireztatzeko beharrak.</li> </ul>			X							
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorroztasunez jardutea parametroen kalkuluan.</li> <li>• Neurtzeko aparatuak zuzen erabiltzea.</li> </ul>			X							
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK				
ZER egingo duzun edo duten Jarduera mota		Helburu inplikatuak.	D		NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den	
					Ir.	Ik.						
J1 UDaren aurkezpena.			0,5 h	X	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	Ikasleek alde aurreko jakintzak azalertzeko, eta horien eta garatu beharrekoez edukien arteko loturak ezartzeko, betiere ikasteko interesa sorraraz dezaten.	Ikasleei emango zaien unitatea aurkezteko eskema.			





J2 Ingurumenaren kalitate termikoaren kontzeptuari buruzko azalpena.	1	1 h	X		Irakasleak konfortaren kontzeptua sartuko du, eta konfort termikoa defini dezaten eta konfort termikoan zer alderdik duten eragina adieraz dezaten eskatuko die ikasleei. Ondoren, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren 1.1.4.1 eta 1.1.4.2 jarraibide teknikoaren arabera azalduko du konfort termikoaren kontzeptua. Hasteko, airearen kalitate termikoari dagokion atala azalduko du. Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren arabera, tenperatura operatiboaren eta hezetasun erlatiboaren alderdiak eta airearen batez besteko abiaduraren alderdiak hartuko barnean. Lehen atalean, MET jarduera metabolikoaren eskala eta CLO jantzi-mailaren eskala azalduko du. Era berean, kalkulatu den ase gabeen ehunekoaren eskala azalduko du, eta aurreko alderdiekin nola lotzen den argituko du.	Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan ingurumenaren kalitate termikoari buruz biltzen diren kontzeptuak ezagutzeko.	Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua, UNE-EN-ISO 7730, UNE-EN 13779, CR 1752, CTE HS3 Power Point
J3 Barneko airearen kalitatearen kontzeptuari buruzko azalpena.	1	0,5 h	X		Irakasleak Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan jasotzen denaren arabera azalduko du barneko airearen kalitatearen kontzeptua. ODA kanpoko airearen eta IDA barneko airearen kontzeptuak azalduko ditu, baita airearen kategoriak kuantifikatzeko moduak ere. Decipol eskala eta iragazte glomerulararen motak ere azalduko ditu.	Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan barneko airearen kalitateari buruz biltzen diren kontzeptuak ezagutzeko.	Eraikuntzako Kode Teknikoa (CTE HS3) Ordenagailua, Internet, Software espezializatua.
J4-E1 Barneko airearen kalitateari buruzko jardunbide gidatua.	1	1 h	X	X	Irakasleak ingurumeneko CO2 kontzentrazio-neurgailua nola erabiltzen den azalduko du. Ikasleek hainbat barrutitan egingo dituzte neurketak: ikasgeletako, lantegietako eta korridoreetako barneko airearen kategoria kalifikatuko dute.	Barneko airearen kalitatearen datuak hartzeko jarduna praktikatzeko, eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua ezartzen dituen kategorien barruan kualifikatzeko.	CO2 analizagailua.
J5 Diagrama psikrometrikoiari buruzko azalpena.	2	1 h	X		Irakasleak diagrama psikometrikoa azalduko ditu. Diagraman jasotzen den parametroetako bakoitza aztertuko du: erroil lehorreko tenperatura, erroil hezeko	Diagrama psikometrikoko funtzionamendua ezagutzeko.	Arbela. Ordenagailua. Power Point. Diagramaren fotokopiak.



					tenperatura, asetasun-lerroa, hezetasun erlatiboa, hezetasun absolutua, entalpia, pisu espezifikoa.		
J6-E2 Psikometriari buruzko ariketak egitea.	2	5 h	X		Ikasleek, diagrama psikrometrikoa erabilia, aire girotuko instalazioak kalkulatzeko ariketak egingo dituzte. Aire-nahasketako oinarritzko ariketekin hasiko dira eta hotz- eta bero-bateriekin jarraituko dute. Amaitzeko instalazioetarako beharrezko potentziak kalkulatuko dituzte. Ohiko instalazio baten kalkuluak egin ostean, beroa berreskuratzeko instalazio bat gaineratuta egingo da kalkulua.	Diagrama psikrometrikorekin erabilera praktikatzeko eta girotzeko instalazioetako parametroak kalkulatzeko.	Arbela. Diagramaren fotokopiak.
J4 Psikometriari buruzko praktika gidatua.	2	1 h	X	X	Ikasleek aire girotuko instalazio baten neurketak egingo dituzte eta diagrama psikrometrikoko batera eramango dituzte emaitzak. Horrela, aireak instalazioan izan duen bilakaera azalduko dute, eta errendimenduak eta potentziak azalduko dituzte.	Psikometriari buruzko ezagutzak benetako instalazio batean aplikatzeko.	Airea tratatzeko unitatea. Diagrama psikrometrikoa.
<b>OHARRAK</b>							



3. unitate didaktikoa: KARGA TERMIKOEN KALKULUA							Iraupena: 30 ordu					
<p><i>IE 1: Berotzeko, hozteko eta girotzeko instalazioetako karga termikoa kalkulatzeko du, eta, horretarako, taula, diagrama eta programa informatikoak erabiltzen ditu.</i></p> <p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Planoak, eraikuntza-xehetasunak eta proiektuaren datuak abiapuntu izanik, etxebizitza edo lokal baten berotze-karga termikoa lortzea.</li> <li>Proiektuaren datuak abiapuntu izanik, hotz-instalazio baterako hozte-karga termikoa lortzea.</li> <li>Planoak, eraikuntza-xehetasunak eta proiektuaren datuak abiapuntu izanik, etxebizitza edo lokal bat girotzeko karga termikoa lortzea.</li> </ol>												
EDUKIAK							Multzoak					
							1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berotzeko instalazioetarako karga termikoak kalkulatzeko.</li> <li>Hozteko instalazioetarako karga termikoak kalkulatzeko.</li> <li>Girotzeko instalazioetarako karga termikoak kalkulatzeko.</li> </ul>						X					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hozteko, girotzeko eta berotzeko instalazioen karga termikoak.</li> </ul>						X					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zorroztasunez jardutea parametroen kalkuluan.</li> </ul>						X					
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK				
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den					
			Ir.	Ik.								
J1 UDaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	Ikasleek alde aurreko jakintzak azalertzeko, eta horien eta garatu beharrekoezko edukien arteko loturak ezartzeko, betiere horiek ikasteko interesa sorraraztearen.	Ikasleei emango zaien unitatea aurkezteko eskema.					
J2 Hozte-karga termikoa kalkulatzeari buruzko azalpena	2	2,5 h	X		Irakasleak hotz-instalazioetarako karga termiko estandarreko orri bat aurkeztuko du, eta haren atal	Hotz-instalazio bateko karga termikoko orriaren atalak ezagutzeko eta orri hori	Hotz-instalazioetako karga-orria. Datu-etaulak. Power Point.					



					bakoitza argituko du.	erabiltzeko beharrezkoak diren taulak jakiteko.	
J3-E1 Hozte-karga termikoak kalkulatzeko ariketak egitea.	2	6 h		X	Ikasleek hozte-instalazioen kalkuluak egingo dituzte, eta benetako edo asmatutako instalazioetako proiektuen abiapuntuko datuak lortuko dituzte.	Hozte-karga termikoen kalkuluak praktikatzeko.	Hozte-instalazioetako karga-orria. Datu-taulak. Power Point.
J4 Berotze-karga termikoak kalkulatzeari buruzko azalpena	1	2 h	X		Irakasleak bero-instalazio baterako karga-orri batean dauden desberdintasunak azalduko ditu. Bero-instalazioetako kalkuluetarako erreferentziazko arauak azalduko ditu. Era berean, karga termikoak gutxi gorabehera kalkulatzeko beste material batzuk aurkeztuko ditu.	Bero-instalazio bateko karga termikoko orriaren atalak ezagutzeko eta orri hori erabiltzeko beharrezkoak diren taulak jakiteko.	Bero-instalazioetako karga-orria. Datu-taulak. Power Point.
J5-E2 Berotze-karga termikoak kalkulatzeko ariketak egitea.	1	6 h		X	Ikasleek bero-instalazioen kalkuluak egingo dituzte, eta benetako edo irakasleak emandako instalazioetako proiektuen abiapuntuko datuak lortuko dituzte.	Berotze-karga termikoen kalkuluak praktikatzeko.	Bero-instalazioetako karga-orria. Datu-taulak. Power Point.
J6 Girotze-karga termikoak kalkulatzeari buruzko azalpena.	3	2 h	X		Irakasleak berotze-kargen eta girotze-kargen kalkuluaren arteko aldeak azalduko ditu. Karga termikoak kalkulatzeko orri baten ataletako bakoitza argituko du eta erreferentziazko datu-taulak azalduko ditu.	Girotzeko instalazio bateko karga termikoko orriaren atalak ezagutzeko eta orri hori erabiltzeko beharrezkoak diren taulak jakiteko.	Girotzeko instalazioetako karga-orria. Datu-taulak. Power Point.
J7-E3 Girotze-karga termikoak kalkulatzeko ariketak egitea.	3	6 h		X	Ikasleek girotzeko instalazioen kalkuluak egingo dituzte, eta benetako edo irakasleak emandako instalazioetako proiektuen abiapuntuko datuak lortuko dituzte.	Girotze-karga termikoen kalkuluak praktikatzeko.	Girotzeko instalazioetako karga-orria. Datu-taulak. Power Point.
J8-E4 Karga termikoak software espezializatua erabiliz kalkulatzeko ariketak egitea.	GUZTIAK	5 h	X	X	Instalazio termikoetako karga termikoak kalkulatzeko modua ikasi ondoren, ikasleek girotzeko instalazio bateko karga termikoak kalkulatzeko software komertziala erabiliko dute.	Instalazio termikoetako karga kalkulatzeko dagoen software komertziala ezagutzeko.	Girotzeko instalazioen karga kalkulatzeko softwarea.





OHARRAK



4. unitate didaktikoa: FLUIDO SAREEN KALKULUA Iraupena: 37 ordu

*IE 5: Fluidoaren garraioan esku hartzen duten parametroak zehazten ditu, eta, horretarako, taulak, diagramak, abakoak eta programa informatikoak erabiltzen ditu.*

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Fluidoaren dinamikaren printzipioak aztertzea.
2. Tutuerietako materialen ezaugarriak aztertzea, baita aplikazio-esparrua ere.
3. Tutuerien parametroak finkatzea hainbat hozgarritarako (diametroa, karga-galera, abiadura eta beste batzuk).
4. Tutuerien parametroak finkatzea beroa sortzeko zirkuituetarako eta ur sanitarioko zirkuituetarako (diametroa, karga-galera, abiadura eta beste batzuk).
5. Tutuerien parametroak finkatzea gas erregaien instalazioetarako (diametroa, karga-galera, abiadura eta beste batzuk).
6. Hozteko, girotzeko eta beroa sortzeko instalazioetarako beharrezko ponpen ezaugarriak zehaztea.
7. Ponpa zirkulatuaren baten ezaugarriak aztertzea, eta instalazio batean duen funtzionamendu-puntua interpretatzea, baita haren aldaketa ere, abiadura-aldagaiak eta orekatze-balbulak erabiliz.
8. Paralelo edo seriean jarritako bi ponpen kurba bereizgarriaren aldaketa aztertzea.

EDUKIAK					Multzoak						
					1	2	3	4	5	6	
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ponpak eta haizagailuak kalkulatzeko eta hautatzeko.</li> <li>• Hodi-sareak kalkulatzeko.</li> <li>• Tutueria-sareak kalkulatzeko.</li> </ul>							X		
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fluidoaren mekanika.</li> <li>• Instalazio termikoetarako tutuerietan erabilitako materialen ezaugarriak.</li> <li>• Ponpak eta haizagailuak. Kurba bereizgarriak. Fluidoetarako ponpa motak. Aplikazio-esparrua.</li> <li>• Hodien sareak. Karga-galera, abiadura eta emaria. Kalkulu-metodoak.</li> <li>• Tutueria-sareak. Karga-galera, abiadura eta emaria.</li> </ul>							X		
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorroztasuna sareetako elementuen kalkuluan.</li> </ul>							X		
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo duzun edo duten Jarduera mota		Helburu inplikatuak	D	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den	
J1 UDaren aurkezpena.			0,5 h	X	X	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du,		Ikasleek alde aurreko jakintzak azalertzeko, eta horien eta garatu beharrezko edukien arteko loturak		Ikasleei emango zaien unitatea aurkezteko eskema.	



					eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	ezartzeko, betiere horiek ikasteko interesa sorraraztearren.	
J2 Fluidoaren mekanikari buruzko azalpena.	1	4,5 h	X		Irakasleak fluidoaren mekanikaren printzipioak argituko ditu, eta abiadura, biskositatea, Reynoldsen zenbakia eta abar azalduko du. Ikasleek gai horren inguruko ariketak egingo dituzte.	Tutuerietan zehar fluidoak garraiatzean esku hartzen duten printzipio fisikoak ezagutzeko.	Arbela Ordenagailua. Power Point. Proiektorea.
J3 Tutuerietan erabiltzen diren materialei buruzko azalpena.	2	3 h	X		Irakasleak tutuerietan erabiltzeko materialak, erreferentziazko arauak eta aplikazio-esparrua azalduko du.	Tutuerietan erabiltzen diren materialak ezagutzeko eta instalazio bakoitzean egokienak zein diren jakiteko.	Arbela Ordenagailua. Power Point. Proiektorea. Fabrikatzaileen katalogoak. UNE arauak.
J4-E1 Hozgarri-tutuerien kalkulua egitea.	3	5 h		X	Ikasleek instalazio bateko hozgarri-tutuerietarako diametro egokia kalkulatu dute, proiektuaren datuak abiapuntu izanik. Kalkulu-diagramak eta berariazko softwarea erabiliko dute.	Hotz-instalazioetako tutueriak kalkulatzeko ikasteko.	Arbela Ordenagailua. Power Point. Proiektorea. Karga-galerako diagramak.
J5-E2 Ur-tutuerien kalkulua egitea.	4	4 h	X		Ikasleek ura zenbait tenperaturatan garraiatzeko hainbat materialetako tutuerien diametroa kalkulatu dute. Horretarako, berariazko softwarea eta diagramak erabiliko dituzte.	Mota guztietako instalazioetan (girotzekoetan, berotzekoetan, ur bero sanitariokoetan, eta abar) ura bideratuko duten tutueriak kalkulatzeko.	Arbela Ordenagailua. Power Point. Proiektorea. Karga-galerako diagramak. UNE arauak.
J6-E3 Gas-tutuerien kalkulua egitea.	5	7 h		X	Irakasleak gasa garraiatzearen bereizgarritasunak azalduko ditu. Ikasleek tutuerien kalkulua egingo dituzte zerbitzu-presioetan. Horretarako, berariazko softwarea erabiliko dute eta konpainia hornitzaileen eskakizunak aztertuko dituzte.	Gas-eroanbideetako tutueriak hainbat lan-presiotan kalkulatzeko, betiere indarrean dagoen araudiaren arabera eta konpainia hornitzaileen eskakizunen arabera.	Arbela Ordenagailua. Power Point. Proiektorea. Karga-galerako diagramak. Gasaren araudia. UNE arauak.
J7 Instalazio termikoetako ponpei buruzko azalpena.	6	4 h	X		Irakasleak instalazio termikoetan erabiltzen diren ponpen funtzioak eta osagaiak azalduko ditu. Proiektuaren datuetan oinarrituta, katalogo bateko ponpa bat aukeratzeko modua azalduko du.	Zirkuitu hidraulikoetarako ponpa egokiak hautatzeko ikasteko.	Arbela Ordenagailua. Powerpoint. Proiektorea. Fabrikatzaileen katalogoak.
J8 Ponpei buruzko jardunbidea	6,8	5 h	X	X	Ikasleek ikasgela-lantegian muntatu eta	Ponpen zatiak eta horien	Arbela Ordenagailua. Power



gidatua.				desmuntatuko dituzte ponpak, eta horien osagaiak identifikatuko dituzte. Ponpa-bankada batean errendimendu-kurba esperimendatuko dute, emari eta altura manometrikoak aldatuz. Bankada horretan bertan esperimendatuko dute bi ponpa paraleloan eta seriean jartzearen ondorioak.	funtzionamendu-propietateak ezagutzeko.	Point. Proiektorea. Ponpa desmuntagarriak. Ponpekin saiakuntzak egiteko bankada.
J9 Ponpa baten funtzionamendu-puntuari buruzko azalpena.	7	3 h	X	Irakasleak funtzionamendu-puntuaren kontzeptua azalduko du. Funtzionamendu-puntua abiadura-aldagailuen bidez edo orekatze-balbulen bidez aldatzeko modua azalduko du.	Ponpa bat zirkuitu hidrauliko jakin batera egokitzen jakiteko.	Arbela Ordenagailua. Power Point. Proiektorea. Fabrikatzaileen katalogoak.
E4 Ikaskuntza-prozesuari buruzko prestakuntza-ebaluazioa	6,7,8	1 h	X	Idatzizko proba baten bitartez, ikaskuntza-prozesuan erdietsi diren lorpenak ebaluatu nahi dira. Jarduera horren helburua da ikaskuntza-prozesua atzeraelikatzea eta, beharrezkoa izanez gero, unitate didaktikoa berrantolatzea, osatzeko edo sakontzeko jarduerak izango diren egokitzapenen bitartez.	Ikasteko prozesua ebaluatzeko.	
<b>OHARRAK</b>						





